



Ez da maiz gertatzen euskal liburgintzaren munduan ospe handiko bi lumen liburuak batera kaleratzea. Oraingoan, ordea, holako zerbitu suertatu da Txillardegiren eta Sarrionaindia liburu bana eskaparatean dutela plazaratu zaizkigula ospatu berri den Durangoko Azokan. Hau dela eta, zenbait aurkezpen egiten ari dira egunotan Euskal Herrian zehar Txillardegiren "Exkixu" nobela eta Joseba Sarrionaindiaren "Marginalia" saio bilduma. Pasa den astelehenean Iruñean Joan Mari Irigoien idazle altzarrak aurkeztu zuen Txillardegiren obra berria. Horretarako irakurri zuen idazkiaren interesa kontutan hartuta, pasarte batzu orrialde haretara ekartzea erabaki dugu gure irakurle gehienek gustora irakurriko dituztelakoan.

## Joan Mari Irigoien Txillardegiren «Exkixu»z mintzo

Nire irguruko jende guztiak daki nola gorrotatzen duan telefonoa, baina goiz hartan, hala ere, hartzea erabaki nuen, gabez amets egin bait nuen Elisabetek telefonoz deituko zidala, nire bihozkeko Elisabetek, bai, bere begetan hondorik gabeko itaso bi cituen nire bihozkeko Elisabetek, baina esatera zaharrak dioen bezala, "Amets: zerria askan trabes" eta nik zerriarekin ez, baino Xabieren ahoisarekin topatu nintzen, euskal literaturaren munduan buitzaka datorren gazte horiekin eta hizketan hasi zitzaidan "Hi, Joan Mari, Txillardegik egina dik bere azken nobela; protagonista aitzatarra duk eta haren ustez hi izango hantzake aurkezpena egiteko pertsonarik egokiena" eta orduan San Pablori Damaskorako bidean gertatutakoa gertatu zitzaidan niri ere, baina guztiz alderantziz, jakina, hari argia egin zitzaion artean niri gaua egin bait zitzaidan eta erretatu egin nahi izan nuen, baina toitz bakarra zetorkidan ezpainetara: "Tierra rógame, tierra trágame".

Erantzun goiola esan nion, ez nuela bera oraindik pertsonalki ezagutzen, pentsatzen uzteko. Eta pentsatzen eta pentsatzen, hiztegiari begiratzea bururatu zitzaidan, Txillardegiren esentziaren berri ahalki eta azkarren itakin nahian edo, baina hain urduri ne goen euskarazko hiztegiari begiratu beharrean, gaztelarazkoan begiratu nuela eta

han, bai: "chilla...Chillán...chillán..." aurkitu nituen eta ondoren "Chillardegui" ere bai, eta "Chillardegui = Lugar del grito" jartzen zuen eta nik hori sentitu nuen, oihu egiteko gogoia, eta oihuka hasi nintzen: "Txillardegik, Txillardegik, ez al haiz hi niretzat gehiegia?".

Eta niretzat gehiegia ote zen jakiteko Amasara joatea erabaki nuen. Joan nintzen, bada, harantz eta hantxe aurkitu nituen Txillardegik eta Jone, eta haien seme-alabak ere bai. Eta kafea o'era ziezadaten baino lehenago nire kezak azaldu nizekion/nizkien, eta Txillardegik nire argudioak hankaz gora jarri nahian "Hik ba al dakik zer den txillarra?" galdetu zidan, eta nik "Lugar del grito" delakoa aipatu nion eta berak inbarrez, erdi barrez, hauxe esan zidan: "Txillarra ni bezalako zuhamuxka txiki bat duk, motel. Nola izango naiz, bada, hirezat gehiegia?", eta une hartan altxa egin zen eta ni haren parean jarri nintzen, eta bera txikia ez, baina nik baino zentimetro bat gutxiago zuela konturatu nintzenean, apur bat animatu nintzen, baina ez gehiegia halarik ere. Eta hizketan eta hizketan segitu genuen, berak bereari eta nik neureari eutsi nahian, "Txillarra sendaberrara ere baduk" esan zidan arte, "hara zer dioen liburu honek: 'es una excelente medicina para los cálculos renales y de la vejiga, el reuma y la gota', eta hura en-

tzunda, lau urte atzerago pasarako zistitiaz gogoratu nintzen eta ustegabeen, "Hala bada..." hasi nintzaion, baina nik esaldia amaitu baino lehen, berriro eraso ninduen Txillardegik: —ba hala bada, hala bedi. ez, ez nuen ihesbiderik...

\*\*\*\*\*

Txillardegik berak "Elsa Scheelen'en azken argitarapean egiten duen hitzazurretik ateratako pasarte bat aldatuko dut hona, zenbait esanien haske: "Euskaitzaindiaren Soria jasotzea pozgarri gertatu zitzaidan, nola ez. Baina berehala somatu nuen, errespetatzen ditudan adiskide ikasi batzuren-gandik, ene liburu ez zela gustatu. Batek "atzerako urratsa" aipatu zidan; beste batek, berriz, "nobelagintza berriak urrun" nembilela; beste batek, hirugarren pertsona eta kondatzaile "orojakile"-aren ikuspuntutik idaztea, deskalabroa zela 1967-an, ideologiaren gehiegia salatzen zidan beste batek: eta abar. Arestik berak ere, "poeta" naizela esan zidan, ez nobelaria; eta "Elsa" honetan agertzen diren pasarte batzuetako hildoaen barrena idatzi behar nuela aurrerakoan, poesia alegia. Luzaz pentsarazi zidaten kritika honek, eta nobelagintzarako osotara hoztu ere bai; eta nobelagintzari uzteara deliberratu nintzen. Eta hamaita urte honetan ez dut nobelarik agertu. Agindua dut (eta ongi abiatua

ere bai) batere Elsa-ren tanterako izango ez den liburu bat. Agian menturatuko naiz berriro plazaratzera...

Eta bai, zorionez berriro plazaratu zaigu Txillardegik, "Exkixu" izenburuko elaberiarekin. Eta esan dezadan, munduak buelta asko ematen bait ditu eta ez bait du neure burua kritikalaritzat, ez naizela ni hasiko "atzerako urratsa" ala "aurrerako" den nobela hau esaten, munduaren jirabira horien arabera maiz gertatzen bait dira "atzerako urratsak, aurrerako" eta "aurrerakoak, atzerako", "superatutako gauzak, superatu gabeko".

Urrufirago joan gabe, lehen aipatu "orojakile"-aren ikuspuntutik idaztea 1967-an deskalabro bat bazen, bestela gertatzen da gaur egun, eritzi horiekin alderatuzko, 1981-eko maiztako "Susana" n J.A. Arrietak esondakoa ekar bait ditzaket hona: "...Txuma Lasagabasterrek esaten dik (...)historiak kontatu behar ditugula. Galdos erabili behar dela, edo Balzac. Gure ikuspuntuari buruzko eskrupulorik, hirugarren pertsona orojakile-eta, gaintu behar ditugula, eta goitik behera pertsonajeak montatu eta pertsonaje horiek dantzan jarri bere artean".

(...)Izan ere, eztabaida horretan norik du arrazoiak, lbonek ala Arrietak? Nire ustez, bieki. Eta hori uiertzeko kontutan izan behar dugu lbonek kritika egin

zuen garaian ezezagunak zirela gure artean kontatzen dela berriak, ezezagunak edo erabili gabekoak behintzat eta mundu horretara jaiotzeko zerbitu egin beharra zegoela...eta halaxe egin zuen. Baina modu berri horiek nola edo hala gureganatu ondoren, bere zentzua galtzen du kritika horrek eta horiek letorke Arrietaren buelta.

"Atzerako urratsak, aurrerako" eta "aurrerakoak, atzerako" bihurtzen dituen istorio honek zerbitu erakutsi behar liguke.

[...]Beste adibide bat...eta honek bai lotuko gaituela zutenki "Exkixu"rekin. Lehengoan norbait entzun nion politika literaturarekin nahastean denean literaturaren kaltetan dela beti; orain dela gutxi ere hori bera irakurri nion idazleren bati (ez naiz gogoratzen nor), hor, "Quimera"-n. Eta ni ez nago ados; gure gutxiago gure herrian, herri honetan, onerako nahiz txarerrako, politika izan bait da gure amets askoren butzagari, gure maitasun eta gorroto askoren aulagarri. Eta ez al dira, bada, nobelak idazten - nobela gehienak bahintzat - gizonen maitasuna eta gorrotoak azaltzeko, gizonen ametsak deskribatzeko? Orduan...?

Baina nobela politiko bat baino gehiago, "abenturako nobela" bat iruditu zait niri, edota "abenturako eta desabenturako" nobela bat, hobeto esanda.

(ll. orrialdean segitzen du)

# Irigoienek Txillardegiren «Exkixu» aurkeztu



(I. orrialdetik dator)  
Eta alde horretatik lehen ai-  
putu Lasgabaster eta Arrietaren  
eritziekien lot genezake, zera zio-  
tenean: "...historiak kontatu  
behar ditugu. Galdos erabili  
behar dugu, edo Balzac..."  
[...]Eta rik Txillardegiren nobela  
honetan hori aurkitu dut lehenik,  
historia bat, eritimo bizi bizia  
duen nobela bat, lehenengo  
orritik azkenaraino segidan ira-  
kurtzen den horietakoa, eta ez  
dakit Galdos edo Balzac, baina  
Barojaren eragina, bai, hori be-  
hinzat antzeman daiteke.  
Alde honetatik eta bere au-  
rreko elaberriekin gonbaratuta,  
beste bide batetan sartu dela iru-  
ditu zait.  
Hara zer zioen Joxe Azur-  
mendik "Haizeaz bestaldetik" en  
hitzaurrean:

"...Alderik alde, Txillarde-  
giren obra guztia obra honetan  
dago. Hemengo pertsonaia,  
bere ausentiaz presente da-  
goena, Txillardegiren betiko per-  
sonaia da. Hemengo denbora -  
mitikoa - Txillardegik beti borratu  
izan duen denbora da: gogora  
"Leturia": udalen, uda,  
udazken, negu...Ez dago denba-  
rarik. Ez dago pertsonarik. Ak-  
ziorik ez dago. Espaziorik ez  
dago. Espazioa irrealia da..."  
"Zerubide!". Denbora irrealia  
da...Beraz, Txillardegik, ezagu-  
tzen genizkion bere karakteristika  
formalak, ez ditu abandonatu,  
guztiz radikaldu egin dizkigu, es-  
tremisioraino..."

Hemen, aldiz, protagonista,  
Antton Arraiza, beti dago pre-  
sente, bere presentziarekin bete-  
tzen gaitu etengabe, elkarren  
jarrarian gertatzen zaizkion aben-  
tura eta desbenturek ez digute  
bestera gogetarik egiten  
uzten; "Leturia" beti erabaki eta  
galdu egiten da bere gogoetan;  
"Peru" ere berdin, bere iragan-  
kortasunaren oinazean galtzen  
bait da; "Leturia" eta "Peru" k  
bere isatsari koskaka ari zaion le-  
gatza gogorazten didate; Antton  
Arraizak, aldiz, tiburori bihurtzea  
erabakitzen du eta bere isatsaz  
gogoratu ere egin gabe aurrera  
egiten du beti; "Leturia", atzera  
begiratzen duenean, nostalgian  
galtzen da; Anttoni ere nostalgia  
datorri atzera begiratzen duene-  
an, bere haurtzaroko Altzari  
begiratzen dionean bereziki,  
baina ez da nostalgian galtzen,

aitzitik baizik, nostalgia hori  
guztiz eraginorra gertatzen bait  
zaio: Anttonek atzera begiratzen  
du, bai, baina aurrera egiteko.

Denborarekin ere antzeko zen-  
bait gertatzen da, Anttonen den-  
bora ez bait da mitikoa, Txillar-  
degiren aurreko nobeletan gerta-  
tzen zen bezala, ez da denboragabetsunaren uretan  
amiltzen, ez da lau arotan bana-  
tzen den sinfonia, ez da, ez,  
"Leturia" n bezalakoa... abentu-  
retako nobelen antzekoa baizik,  
35 kapitulutan banatutakoa, 35  
kapitulu azkarren, honetan ere  
teknika periodistiko eta zinema-  
tografoaren eragina nabari dai-  
tekeelarik.

Eta espazioarekin ere, ber-  
dintsu; beste nobeletan irrealia  
bazen, hemen guztiz errealia bait  
da; "Haizeaz bestaldetik" en es-  
pazioak "Zerubide" bazuen  
izena, honaokan beste mutu-  
rean dabil, "Inferubide" n, eta  
"Inferubide" hori guztiz errealia  
da...eta galdetu niri bestela, Al-  
tzan bizi naizela.

Beste leku batean hauxe dio  
Azurmendik:

"Apokalipsia gogoratzen du  
nobela honek, hitzez hitz, lerroz  
lerro, irudiz irudi. Apokalipsi ba-  
tetan denak balio simboliko du".

Eta hor, bai, puntu komunik  
ikus daiteke agian beste nobe-  
lekin, niri ere nobela honek Apa-  
kalipsia gogoratzen bait dit,  
baina ez era simboliko batean,  
oso era konkretuan baizik, prota-

gonistarengan haragitua, zeren  
Apokalipsia munduaren amaiera  
hipotezikoki batekin lotuta ba-  
dago, Exkixun ez da horrelakorik  
gertatuko, hipotesia errealitate  
bihurtuko bait da hemen, erreali-  
tate gordin, Anttoni bere mun-  
duaren amaiera bertatik bizitzea  
tokatzen zaionean, berak biho-  
tzez maite duen eta bihotzean  
daraman Altzaren amaiera, au-  
topistak zauritua, zementuak es-  
talia.

Hizkuntzari dagokionez, ber-  
ritz, hauxe zioen Mitxelenak  
"Leturiaren egunkari ezkutua" n,  
hango hitzaurrean:

"...Ez dut esango, ez baitli-  
tzateke egia nire ustez, Txillar-  
degik bere mintzaera zeharo es-  
kuratu duenik liburu honetan: ha-  
lako gordin-antxa aurkitzen zaio,  
osoro heldu ez den fruituarena.  
Ezin zitekeen bestela izan: ez  
ditu hitzak menderatu, hitzekin  
borroka bizian ari da. Ez baititu  
hitz pallitak apaintzira elkartu  
nahi belarrien gozorako, hitz ho-  
rien bidez adierazi baino ari-  
maren zoko ilunetan izkutatzen  
diren joera eta burutapen ihesko-  
rak. Ez baita, batez ere, inoren  
oihurtzen, ez baita besteren  
ahoz ari, bere baitaren baitatik  
baizik".

Eta ene ustez, arrazoi zuen  
Mitxelenak. Eta ulertzekoa ere  
bazen. Izan ere Leturiaren baitan  
sartuz gero, edonork senti zitza-  
keen haren bururka existenzia-  
laren "gorabeherak", edota  
"behetigorak" esan behar ge-

nuke hobeto, bizitzan beti  
malda gora balebil bezala; eta  
Txillardegik aukeratzen duen hiz-  
kera ere burruksua egiten zaio  
irakurleari, hitzak ere malda  
gora jarririk baleude bezala. No-  
bela honetan, aldiz, oso bestela  
gertatzen da, Anttonen bizitza  
gogorra bada ere, aski garbi  
bait dakusa une bakoitzean zein  
den bere aukera. Leturiak - eta  
Peruk ere bai - bere baruan dute  
etsai nagusia eta etsai horrekin  
ez dakite nola jokatu. Anttonen  
kasuan, aldiz, kanpotik datorzik,  
berak jasan ezin dituen eran gai-  
nera: kanpotik datorzik dorre  
zatarrak bere haurtzaroko espa-  
zioa itotzen; kanpotik datorriko  
gatzelania, bere euskara zapal-  
tzen; kanpotik datorzik, gura-  
sengandik, isilatsuna eta bel-  
durra, bere hitzak hesitu nahian;  
kanpotik datorzik faszismoaren  
atzaparrak, bere askatasuna lau  
zati egin asmoz, e.a., e.a. Eta  
etsai horien aurrean, aurrera  
egitea erabakitzen du, marea-  
zoak bezala, akzioa bait da  
haren erantzuna, pauso bat  
emanez gaur, bi bihar, hiru etzi,  
gero eta pauso gehiago gero  
eta azkarrago, bere denbora  
malda beheara utzitako goitibe-  
hera bailitza, eritimo azka-  
rrean, heriotzera bideratuko  
duen azken ekintzaraino. Eta  
eritimo azkar hori isladatzeko  
eritimo azkarreko prosa darabil  
Txillardegik nagusiki, preziosis-  
motan erori gabe, idazketa atal

motz etenetan moldatuz, digre-  
sioetan galdu gabe, Anttonek har-  
tutako bideari zegokion bezala,  
ene ustez.

Baina hau ala bestea esan eta  
Euskal Herriko irakurleagari be-  
gira, beldur naiz ez ofe dituen  
gaiak berak itzalean uziko espa-  
zioak, denborak, formak, eta  
beste guztiak, azkenean. Izan  
ere Txillardegik gure historia hur-  
bilaren zati bat errekuperatu nahi  
izan du, gure errealitatearen zati  
bat. Eta errealitateaz ari naiz-  
enez, esan dezadan nik  
"Udazkenaren balkoitik" egin  
nuenean, errealitatea izan zela  
nire aztergai nagusi, gure erreali-  
tate sozialaren zati konkretu bat  
bereziki, eta kezka horrek bul-  
tzata eguneroko baten antzeko  
idazkia moldatu nuela, gero ar-  
gitaratuko ez nuena. Bertan  
errealitate horri buruzko nire zen-  
bait gogoeta azaldu nahi nuen  
horietako batean hauxe nioen:

"Etainak 27:

Errealitatea berri...baina errea-  
litateaz mintzatzerakoan beste  
errealitate bat erakitzen omen  
dugu. Nobela bat idazterakoan,  
zer esanik ez. Errealitate batetik  
bestera zubi bakar bat, ispilu  
bat: hitza. Baina hitza, monoli-  
tikoa gerta daitekeen bezala,  
guztiz aldatzorra ere gerta dai-  
teke, denboraren zurruntbilan  
amildurik dagoenez gero, alde  
asotakoa ispilu bihurtuz. Gero  
irakurlea dator, eta irakurlearen  
baitan hitz horrek beste hamaika  
interpretazio har ditzake. Beraz,  
ispilu bat dugu hasieran; gero  
irakurlearen ispiluak dator: ispi-  
laren ispiluak, jatorrizko erreali-  
tate ilusio huts bilako dezaketan  
ispilu-joko etengabeak".

Eta ispilu-joko honetan, geure  
herri zaitakua honetan badakigu  
batzuenzat "arre" dena, beste-  
teentzat "so" dela eta tartean  
politika sortzen badugu, zer  
esanik ez, politikak mutur batera  
bait garamatza batzuka, bestera  
bestek. Horregatik, hain zuzen,  
ziur nago Antton Arraizarekin  
nola edo hala identifikatzen de-  
nari, besterik gabe, oso ona iru-  
diko zaiola "Exkixu" eta alde-  
rantziz ere bai, besteei oso  
txarra begintaduko bait zaie.

Nik, aurkezpen honetan,  
beste parametro batzuk ekarri  
nahi izan ditut, balorazioetan  
bat egiterakoan horiek ere kontutan  
izan ditzazuen.

## apuntes

Ramón IRIGOIEN

A SISTI hace quince días a  
la presentación en Perico  
Chicote —el rey de los  
cócteles— de «Nada en el  
domingo», la última novela de  
Francisco Umbral, pero los  
últimos días no es tiempo  
precisamente lo que me sobra y  
aquí estoy con el vivísimo deseo  
de haberla leído, pero sin ni  
siquiera haberla hojeado. Mi  
enorme admiración por la  
eficacísima y bella prosa de  
Umbral me pondrá en vías de  
lectura inmediata.  
Por recomendación personal y  
luego pública de Clara Janés

## Todo en el domingo

—ha publicado una excelente  
crítica— leo la espléndida novela  
«En brazos de la mujer madura»  
de Stephen Vizinczey, un  
húngaro hoy exiliado en  
Londres, que con esta novela se  
consagra como uno de los  
grandes clásicos internacionales  
del erotismo. Su fondo  
conocimiento de la naturaleza  
humana y de los complejismos  
obisimos y rincones del amor y  
del sexo, expresados con un  
lenguaje ágil y un humor  
fresquisimo, convierte esta  
novela en una de las  
primerisimas joyas de la  
temporada por estos pagos. En  
otros países es ya un justísimo  
best-seller desde hace años.  
«Esa idea de que sólo se puede  
querer a una persona es lo que  
confunde a la mayoría de la  
gente», deja caer Vizinczey  
como si nada en un diálogo.  
Tras un rapidísimo paso por

Bilbao, en cuya sala Arte Nativa  
de Deusto una entusiasta  
cooperativa de jóvenes —con  
Txomin Santa y la pintora Beatriz  
Silva en punta— luchan contra un  
desahucio, doy una charla con  
el título «El humor de los amores»  
—De Parménides a Butragueño—  
a la misma hora en que nos  
derrota Alemania. El viaje es  
rápido, pero llevo a ver la última  
y maravillosa obra de Emilia  
Martínez, una pintora que ha  
confeccionado en Bilbao unos  
collages de una exquisitez  
auténticamente japonesa. Le  
compro dos, porque no tengo  
pasta para comprarle cuatro.  
Y así llevo al domingo, en  
que, frente a la nada de la  
novela de Umbral, me ocurre de  
todo. Amanezco en Logroño y  
desayuno con una amiga  
casada el sábado por lo civil y el  
desayuno es tan intensamente  
amistoso como civilizado.

Me traslado a Pamplona y,  
antes de mi habitual visita a una  
clínica, donde ya siempre tengo  
ingresado algún familiar o un  
amigo —y donde me entero de  
que otro conocido o vecino  
acaba de acampar en el  
quirófano de la misma clínica—  
me doy la imprescindible vuelta  
por la Plaza del Castillo.  
A mi regreso de la clínica tomo  
una copa con el genial —en el  
sentido literal— fotógrafo  
guineano-pamplonés Koldo  
Chamorro, que expone una  
bellísima colección de  
fotografías en la Galería Nueva  
Imagen de Pamplona. De visita  
absolutamente recomendable.  
El final del día es de infarto. Con  
varios días de retraso me entero  
de la muerte del popularmente  
querido Miguel Javier Urmeneta  
y lo siento muy profundamente.  
Hago una llamada y recibo una  
excelente noticia. Salgo de la

cabina, me encuentro con Ana  
Galbete y me comunica que la  
noche anterior ha sido asesinado  
en Madrid nuestro queridísimo  
amigo José Manuel Contreras.  
Un buen pintor segoviano y un  
enamorado de los Sanfermines.